## I ARABAKO FORU ALDUNDIA

### Administrazio Xedapenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**4251**

**27/2010 FORU DEKRETUA, ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, abenduaren 10eko 60/2002 Foru Dekretua aldatzen da, hain zuzen, Sozietateen gaineko Zergaren araudia onetsi zuena, ikerkuntza eta garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerengatiko kenkariei dagokienez.**

Sozietateen gaineko Zergaren uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauaren 43. artikuluko 2. idatz zatian ezarrita dagoenaren arabera, foru arau honen 41. eta 42. artikuluetan arautzen diren kenkariak aplikatzeko –ikerkuntza eta garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerengatiko kenkariak arautzen dituztenak hurrenez hurren–, prozedura bat arautu ahal izango da zergadunek legez erabakitzen den organoak egindako arrazoitutako txostena aurkez dezaten, kalifikatzeko eskatzen diren betebehar zientifiko eta teknologikoak edo berrikuntza teknologikoari buruzkoak betetzen dituzten edo ez adieraziz. Aurrekoaren garapena Sozietateen gaineko Zergaren Araudia onartu zuen abenduaren 10eko 60/2002 Foru Dekretuko 33. eta 34. artikuluek arautzen dute.

Txosten horiek eskatzeko prozedura onartu zenetik igarotako epearen ondoren, egokia da eduki aldetik egokitzapenak egitea aplikazio praktikoa errazagoa izan dadin. Hortaz, Foru Dekretu honek txertatutako aldaketa nabarmenenak txosten arrazoitua eskatzeko prozedura erakunde bidaltzailearen prozedura orokorrera egokitzetik eratortzen dira. Ildo horretatik, txostena emateko eskaera urtero egitea xedatu da eta “zerga ondorioetarako kalifikazio txostena” izena emango zaio. Bestalde, orain arte erakunde eskatzaileak Kreditaziorako Elkarlanerako Europako Elkartean integratutako erakunde batek egoki kreditatu duen erakunde batek eman beharreko txosten teknikoa aurkezteko beharra zuen baldin eta 2 milioi eurotik gorako aurrekontu osoa bazuen. Orain, ordea, milioi bat eurotik gorako urteko aurrekontua duten erakundeek aurkeztu beharko dute.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak honi buruz egindako txostena aztertu da.

Hori dela bide, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT

Artikulu bakarra. Sozietateen gaineko Zergaren Araudia onartu zuen abenduaren 10eko 60/2002 Foru Dekretuaren aldaketa.

Sozietateen gaineko Zergaren Araudia onartu zuen abenduaren 10eko 60/2002 Foru Dekretuaren 33. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“33. artikulua. Ikerkuntza, garapen eta berrikuntza teknologikoaren jardueren ondoriozko kenkaria aplikatzeko arrazoitutako txostena.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 2. idatz zatiak hizpide dituen arrazoitutako txostenak emateko eskudun organoa Eusko Jaurlaritzan gai horri buruz eskumena duen saila izango da, edo bertan atxikita dagoen erakundea. Arabako Foru Aldundiak zehazten dituen erakundeak ere izan ahal dira.

2. Arrazoitutako txostena emateko eskaerak, “zerga ondorioetarako kalifikazio txostena” deitutakoak, urtero abenduaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira. Eskudun organoari bidaliko zaizkio eta eska-

## DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

### Disposiciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**4251**

**DECRETO FORAL 27/2010, del Consejo de Diputados de 15 de junio, que modifica el Decreto Foral 60/2002, de 10 de diciembre, que aprobó el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, en materia de deducciones por actividades de investigación y desarrollo y de innovación tecnológica.**

El apartado 2 del artículo 43 de la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades, establece que para la aplicación de las deducciones reguladas en los artículos 41 y 42 de la citada Norma Foral, que regulan, respectivamente, la deducción por actividades de investigación y desarrollo y la deducción por actividades de innovación tecnológica, se podrá regular un procedimiento para que los contribuyentes aporten informe motivado emitido por el órgano que reglamentariamente se establezca, relativo al cumplimiento de los requisitos científicos y tecnológicos exigidos para calificar las actividades del contribuyente como investigación y desarrollo o como innovación tecnológica. El desarrollo reglamentario de lo anterior se regula en los artículos 33 y 34 del Decreto Foral 60/2002, de 10 de diciembre, que aprueba el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades.

Tras el período transcurrido desde la aprobación del procedimiento de solicitud de dichos informes, resulta pertinente realizar diversas adecuaciones en su contenido dirigidas a conseguir mejoras en su aplicación práctica. Así, las modificaciones más relevantes introducidas por el presente Decreto Foral derivan de la necesidad de adecuar el procedimiento de solicitud del informe motivado al procedimiento general desarrollado por el organismo emisor. A estos efectos, se establece el carácter anual de la solicitud para la emisión del informe, que recibirá la denominación de “informe de calificación a efectos fiscales”, y, por otra parte, se rebaja de 2 millones de euros de presupuesto total a 1 millón de euros de presupuesto anual la cantidad a partir de la cual será preciso que la entidad solicitante presente un informe técnico emitido por una entidad debidamente acreditada por un organismo integrado en la Asociación Europea de Cooperación para la Acreditación.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO

Artículo Único. Modificación del Decreto Foral 60/2002, de 10 de diciembre, que aprueba el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades.

Se modifica el artículo 33 del Decreto Foral 60/2002, de 10 de diciembre, que aprueba el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, quedando redactado de la siguiente forma:

“Artículo 33. Informe motivado para la aplicación de las deducciones por actividades de investigación, desarrollo e innovación tecnológica.

1. Tendrá la consideración de órgano competente para la emisión de los informes motivados a que se refiere el apartado 2 del artículo 43 de la Norma Foral del Impuesto, el Departamento del Gobierno Vasco competente por razón de la materia o un organismo o entidad adscrito al mismo, así como las entidades o instituciones que determine la Diputación Foral de Álava.

2. Las solicitudes para la emisión del informe motivado, que se denominará “informe de calificación a efectos fiscales”, deberán presentarse con carácter anual, antes del 31 de diciembre de cada

tzailearen identifikazioa eta jarduerak adieraziko dira bertan, baita proiektuaren deskribapen memoria ere.

Memoria horretan adieraziko dira eskatzaileak eta hark azpikontratatutako pertsonek edo erakundeek burutu beharreko jarduerak, baita jarduerak eragiten dituen gastuei eta inbertsioei dagozkien urteroko zenbatekoak ere.

3. Beste erakunde batzuekin elkarlanean burutuko diren proiektuak badira, eskaera bakarra aurkeztuko da urtero proiektu bakoitzeko eta erakunde guztiek sinatu behar dute. Parte hartzaileetako bat izendatuko da bozemaile izateko, harremanetarako eta jakinarazpenen arduradun izateko. Proiektuaren memorian jarduerak zehaztuko dira eta erakunde parte hartzaile bakoitzak egingo duen aurrekontuak adierazi.

Txostena proiektuko erakunde parte hartzaile bakoitzari emango zaio.

4. Proiektu baten urteko aurrekontua milioi bat euro baino handiagoa denean, arrazoitutako txostena emateko erakundeak derrigor aurkeztu beharko dio eskudun organoari kalifikazioko txosten teknikoa. Txosten horretan jasoko dira urte horretan proiektuak izan dituen jardueren kalifikazioa eta ikerkuntza eta garapen edo berrikuntza teknologikoari lotutako gastuen eta inbertsioen identifikazioa. Kalifikazioko txosten tekniko hori Kreditaziorako Elkarlanerako Europako Elkartean integratutako erakunde batek egoki kreditatu duen erakunde batek eman beharko du.

5. Nolanahi ere, eskudun organoak erakunde eskatzaileengana jo dezake, aurkeztu duten eskaera egoki ulertu, izapidetu eta ebaluatzeko beharrezko irizten duen adina agiri eta informazio eskatzeko.

6. Eskudun organoak ematen dituen arrazoitutako txostenek nahikoa banaketarekin identifikatu beharko dituzte burutu beharreko jarduerak. Horretarako Zergari buruzko Foru Arauko 41. eta 42. artikuluetan jasotako kontzeptuak hartuko dira jarraibide, eta horietako bakoitzari egozten zaizkion gastuak eta inbertsioak adieraziko dira.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 15a.– Diputatu Nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun Zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

## EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

**4233**

**382/2010 ERABAKIA, ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartzen da, berak hala eskatuta, Jasone Solabarrieta Txakartegi andrea Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzaile kargutik kentzea eta egindako lanagatik eskerrak ematen zaizkio.**

Maiatzaren 13ko Diputatuen Kontseiluaren 305/2008 Erabakiaren bidez, Jasone Solabarrieta Txakartegi andrea Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzaile izendatu zen.

Gazteriaren Foru Erakundea eratzen duen ekainaren 20ko 22/1988 Foru Arauak 7.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Diputatuen Kontseiluari dagokio, Administrazio Kontseiluaren proposamenez, Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendaria izendatzea eta kentzea.

Horretaz gain, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.11 eta 40.7 artikuluek eta Arabako Foru Aldundiko Goi Karguen eta Behin-behineko Langileen Erregimena arautzen duen otsailaren 21eko 4/2000 Foru Arauaren 2. eta 3. artikuluek goi karguak

año y se dirigirán al órgano competente debiendo contener, además de la identificación del peticionario y de su actividad, una memoria descriptiva del proyecto.

En esta memoria se especificarán las actividades a desarrollar por el peticionario y por personas o entidades subcontratadas, así como los importes correspondientes a los gastos e inversiones que se deriven del mismo, periodificados anualmente.

3. Tratándose de proyectos cuya realización se lleve a cabo en régimen de cooperación con otras entidades, se presentará con carácter anual una única solicitud por proyecto, suscrita por todas ellas, designándose a uno de los participantes a efectos de asumir las funciones de interlocución, relación y notificación necesarias. La memoria del proyecto incluirá la determinación de las actividades y el presupuesto que realizará cada una de las entidades participantes.

El informe se emitirá individualmente a cada una de las entidades participantes en el proyecto.

4. Cuando el presupuesto anual de un proyecto supere para una entidad el importe de un millón de euros, para la emisión del informe motivado será preciso que la entidad presente ante el órgano competente un informe técnico de calificación de las actividades e identificación de los gastos e inversiones asociadas a investigación y desarrollo o innovación tecnológica, correspondiente a dicho año y proyecto. El citado informe técnico de calificación deberá haber sido emitido por una entidad debidamente acreditada por un organismo integrado en la Asociación Europea de Cooperación para la Acreditación.

5. En cualquier caso, el órgano competente podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta documentación e información considere necesaria para la adecuada comprensión, tramitación y evaluación de la solicitud presentada.

6. Los informes motivados emitidos por el órgano competente deberán identificar, con la debida separación, las actividades a desarrollar en función de los distintos conceptos contemplados en los artículos 41 y 42 de la Norma Foral del Impuesto, con imputación de los gastos e inversiones afectos a cada una de ellas.”

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, 15 de junio de 2010.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

## DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTES

**4233**

**ACUERDO 382/2010, del Consejo de Diputados de 15 de junio, que cesa, a petición propia, a Doña Jasone Solabarrieta Txakartegi como Directora Gerente del Organismo Autónomo del Instituto Foral de la Juventud, agradeciéndole los servicios prestados.**

Mediante Acuerdo 305/2008, de 13 de mayo, el Consejo de Diputados nombró a Doña Jasone Solabarrieta Txakartegi Directora Gerente del Organismo Autónomo del Instituto Foral de la Juventud.

Según lo dispuesto en el art. 7.1 de la Norma Foral 22/1988, de 20 de junio, por la que se constituye el Instituto Foral de la Juventud, corresponde al Consejo de Diputados aprobar, a propuesta del Consejo de Administración de dicho Organismo Autónomo, el nombramiento y cese del cargo de Director Gerente del Instituto Foral de la Juventud.

A su vez, los artículos 8.11 y 40.7 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava y los artículos 2 y 3 de la Norma Foral 4/2000, de 21 de febrero, reguladora del Régimen de Altos Cargos y Personal Eventual de la Diputación, disponen que corres-